

AURKEZPENA

Gu Ibaizabal Ikastolako bost ikaslez osatutako ikasle taldea gara. Duela gutxi Startinnovako proiektuarekin bat egitea erabaki dugu, haatik, betidanik izan dugu arazo sozial eta injustiziei aurre egiteko grina.

Idea horretatik tiraka, munduko leku guztietan gertatzen den arazoari irtenbide bat bilatzen aritu gara; bide batez, egoera honen inguruko kontzientzia sortaraziz. Pobrezia eta gosetea hain zuzen ere; izan ere, ez al luke lurreko biztanle orok bizitza duin baterako eskubidea izan beharko?



Gure ingurura begiratzearekin nahikoa ez badugu, informazioa arakatzea besterik ez dago. “Banco Mundial” asoziazioak jasotako estatistikek erakusten dutenez, gaur egun bizi dugun pandemia egoeraren ondorioz, pobrezia tasaren igoera aurreikusten da. Covid-19aren agerpenak, 115 milioi pertsona inguru bultzatuko ditu muturreko pobrezia. Guztira, 729 milioi biztanle pobrezia egoeran utziz.